

INSTAGRAM

INSTAGRAM

Txosten honetan aurkezten dira 2021-2022 ikasturtean egindako bigarren inkestan jasotako emaitzak. Instagrami buruzko gaiak landu dira nagusiki inkesta honetan.

1. OHAR METODOLOGIKOAK

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-linformazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerguneak ustiatzen ditu.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2021eko azaroaren 18tik 30era bitartean martxan izandako inkestaren emaitzak. Hilabete honetan Instagrami buruzko gaiak landu dira galdetegiaren bitartez. 1.431 erantzun hartu dira kontuan, hau da, baliozko panelista guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).




2. SARE SOZIALEN ERABILERA

Inkesta honetan, gehien erabiltzen dituzten sare sozialei buruz galdetu zaie, zehazki, gehien erabiltzen duten sare sozialaz, bigarrenaz eta hirugarrenaz. Lehen galderaren kasuan, hiru sare sozialen artean kokatzen dira inkestatuen % 85: Instagram, Whatsapp eta Youtube.

Gehien erabiltzen den sare soziala, inkestatu gehien kasuan, Instagram da (% 41,7 aukeratu du). Ondoren dator Whatsapp (% 31,2k aipatua) eta hirugarren lekuan Youtube (% 12k). TikTok eta Twitter ere aukeratu dituzte pertsona batzuek, erantzuleen % 7,5ek eta % 5,3k hurrenez hurren.


1. Irudia – Aukeratu zerrenda honetatik zuk GEHIEN erabiltzen duzun sare soziala



Iturria: Ikusiker Applika +

Gehien erabiltzen den bigarren sare sozialaren kasuan, hiru aukeral nagusiak errepikatu egiten dira, baina hurrenkera aldatzen da zertxobait: Whatsapp dator lehenengo (% 34,0), ondoren Instagram (% 30,3) eta hirugarren lekuan mantentzen da Youtube (% 14,5ek esana).


2. Irudia – Aukeratu zerrenda honetatik zuk GEHIEN erabiltzen duzun BIGARREN sare soziala



Iturria: Ikusiker Applika +

Azkenik, gehien erabiltzen den hirugarren sare sozialaren kasuan ere podiuma erantzun berek osatzen dute, baina Youtube gehiagotan aipatzen da beste biak baino (% 30,3k esan dute honakoa, % 19,4k Whatsapp eta % 16,4k Instagram).

3. Irudia – Aukeratu zerrenda honetatik zuk GEHIEN erabiltzen duzun HIRUGARREN sare soziala




Iturria: Ikusiker Applika +

3. INSTAGRAM

Inkesta honetan aprobe txatu da gehientsuen erabiltzen den sare sozial bati buruz galdetzeko, Instagrami buruz zehazki. Erantzun duten 1.431 pertsonetatik 1.313k adierazi dute erabiltzen dutela, eta falta direnen erdiek kontua badaukate.

4. Irudia – Instagramen kasuan, esan mesedez, ea erabiltzen duzun sare sozial hori




Iturria: Ikusiker Applika +

Instagramerik eskaintzen dituen aukeren artean, erabilerari erreparatuta, desberdintasun nabarmenak ikusten dira. Segidako grafikoan ordenatuta daude galdetu diren aukerak "inoiz ez dela erabiltzen" erantzun txikiena jaso duenetik handiena jaso duenera arte (zutabe gris iluna).

Aukera erabiliena Story-ak dira: % 64,9k dio askotan edo batzuetan erabiltzen dituela. Segidan Feed-ak datoz, % 26,9k erabiltzen dituenak askotan edo sarritan. Hirugarren lekuan Reel-ak daude, % 16k erabiltzen dituenak askotan edo sarritan, baina kasu honetan dagoeneko inkestatu gehienek ez dutela inoiz erabiltzen diote (% 68,4k). Instagram TV eta Live-ak ez ditu inoiz erabiltzen erantzuleen hamarretik zortzi inguruk.


5. Irudia – Instagrameko aukera bakoitza zein maiztasunekin erabiltzen den



Iturria: Ikusiker Applika +

Instagram zertarako erabiltzen duten ere galdetu zaie. Hamaika erabilera posibleri buruz galdetu da, eta ageriko desberdintasunak daude elkarren artean. Inkestatuek erdiek baino gehiagok adierazten dute “askotan” erabiltzen dutela denbora pasarako (% 70,5) eta gauza entretenigarriak eta barregarriak ikusteko (% 58,6), eta nahiko aipatua da baita lagunekin eta ezagunekin harremanetan egoteko ere (% 45,9k erabiltzen du “askotan” horretarako). Gutxixeago erabilia da bideoak eta argazkiak partekatzeko, informatuta egoteko edo kotileoan ibiltzeko. Aldiz, “gutxitan” aukeran kokatu dira erantzule gehienak honako esaldiei dagokienez: egiten dituen gauzak erakusteko eta nire lagunekin hor elkartzeko naizelako. Azkenik, erdiek baino gehiagok esaten dute inoiz ez dutela erabiltzen ligatzeko (% 50,9), ikasteko ala lanerako (%57,1) edota gauzak erosteko (% 79,7).


6. Irudia – Instagram zertarako erabiltzen den



Iturria: Ikusiker Aplikak +

Gehienbat, norberaren lagunen perfilak jarraitzen dira; hala adierazi dute inkestatuen % 57,2k. Segidan datoz kirolarekin lotutako perfilak (% 13k aukeratuak), celebrity-ak (% 7k), argazkilariak edota zinea eta kulturarekin lotuak (% 6,2), moda gaiak (% 6) eta musika (% 5,9). Gutxien aipatuak politikoak dira (% 0,2).


7. Irudia – Gehien jarraitzen den perfil mota



Iturria: Ikusiker Applika +

Instagram erabiltzen den uneari dagokionez, ia erdiek diote berdintsu erabiltzen dutela astegun eta asteburuan (% 44,8k). Alde batera jotzen dutenen artean, gehixeago dira asteburuan gehiago erabiltzen dutenak astegunetan baino (% 30,3 guztira); astegunetan gehiago erabiltzen dutenak % 24,9 dira.


8. Irudia – Noiz erabiltzen den gehiago Instagram



Iturria: Ikusiker Applika +

Posible balute, gehienek denbora gutxiago pasako lukete Instagramen: % 41,6k apur bat gutxiago eta % 25,8k askoz gutxiago.


9. Irudia – Posible bazenu, Instagramen denbora...



Iturria: Ikusiker Applika +

Esaldi batzuk aurkeztu zaizkie eta zein neurritan dauden ados galdetu. Beheko koadroan erakusten dira esaldi bakoitzak jaso duen adostasun mailaren arabera ordenatuta¹. Adostasun handiena jaso duen esaldia “Instagramen postureo gehiegi dagoela” da, eta segidan “kontsumoa bultzatzen duela Instagramek”. Erantzuleak nahiko barreiatuta kokatu dira hirugarren esaldiaren kasuan: “pandemia hasi denetik gehiago erabiltzen dut”. Azkenik, kontrako iritzia indar handiagoa du bi esalditan: “denbora galtzeko baino ez da Instagram” eta “bitzita alaitu egiten du Instagramek”.

10. Irudia – Esaldi batzuekin adostasuna




Iturria: Ikusiker Applika +

¹ Horretarako, indize bat erabili da: (gutziz ados + apur bat ados / 2) – (apur bat kontra / 2 + gutziz kontra). Hala, erantzun duten guztiak gutziz ados baleude, indizea 100 izango zen, eta denak erabat kontra baleude -100.

Amaitzeko, Instagrami buruzko balorazio orokorra eskatu da 0 eta 10 bitarteko eskala batean (0 negatiboen eta 10 positiboen izanda). Batez beste, 6,61eko puntuazioa eman zaio. Herenak 8 eta 10 bitarteko puntuazioa eman dio, beste herena inguru 7an kokatu da eta beste heren batek 4 eta 6 bitarteko puntuazioa aukeratu du.

11. Irudia – Instagrami buruzko balorazio orokorra



Iturria: Ikusiker Applika +



Lan hau [Creative Commons Aitortu 4.0 Nazioartekoa lizentzia](https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/) baten mende dago.

